

64 - LEGARRE

1. HELBURUAK:

- 1 Trinkotasun handiko etxebizitza gune berri bat antolatzea eta eratzea.
- 2 Deba ibaiaren ertza eta ibilgua era ekologiko baten bidez berreskuratzea.
- 3 Gune osoa ibai berreskuratuari aurpegia emanez egituratzea.

2. EGITURAZKO ANTOLAMENDUA:

LURZORUAREN SAILKAPENA:	Hirilurra
ESPARRUAREN AZALERA:	7.620 m ²
ERABILERA OROKORRA:	Etxebizitza
SISTEMA OROKOR PUBLIKOAK:	Esparruaren barruan gelditzen diren: - Deba ibaiaren zatia
ERAIKIGARRITASUN FISIKOA:	9.884 m ² (e). Horretaz gain 1.865 m ² (e) erdi sotoan aparkalekuetarako.
HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA:	9.884 m ² (e)
ERAIKIGARRITASUN HAZTATUA:	34.413 m ² (h) (36 artikulua)
BABESTU BEHARREKO ONDAREA:	Ez dago
ETXEBIZITZA KOPURUA:	Finkatuak: 8 Berriak: 80
EGITARAUA:	Egikaritzen

3. BEREGANATUTAKO ANTOLAMENDUA:

AE 82.- LEGARRE esparruko hiri-antolamenduko plan berezia, Udal Plenoak 2008ko maiatzaren 19an behin betikoz onartutakoa, bereganatzen du HAPO honek.

4. ANTOLAMENDU XEHATUA:

HIRILUR MOTA:	Finkatugabea
ANTOLAMENDU ARAUBIDEA:	Bereganatua (A4)
JARDUKETAREN EREMUA:	Esparrua bera
JARDUKETA ERA:	Hitzarmen-sistema (K4)
ZUZKIDURAK (TOKIKO SISTEMAK ETA URBANIZAZIO IRIZPIDEAK):	
- Eremu zabal eta berdeguneak.....	1.122 m ² (l)
- Deba ibaiaren ertza eta ibilgua era ekologiko baten bidez berreskuratutako beharko dira, dagokien zatian.	

ERABILERA ARAUBIDEA:

- E. ohikoena: Trinkotasun handiko etxebizitza (71 artikulua)

- Gainontzean, onartutako plan bereziaren arabera

ERAIKIGARRITASUN XEHATUA: Onartutako plan bereziak zehaztu du

ERAIKUNTZAREN ARAUBIDEA: Onartutako plan bereziaren arabera

ESKUHARTZE GUNEA: Plan bereziak bi eskuhartze gune zehaztu ditu

BESTE BATZUK:

1. Gaur egungo eraikinak antolamenduarekin bat datozen ala ez bereganatutako planak zehaztu du.
2. Hirigintza-eraikigarritasun osotik 8.208 m² (e) da eraikigarritasun gehikuntzari dagokiona.
3. Deba ibaiaren ertza eta ibilgua berreskuratzeak tokiko sistema izaera izango du.
4. Eraikigarritasun haztatua kalkulatzeko 36 artikuluan jasotako laukia loteslea da.

5. KONTUAN HARTZEKOAK:

- 1 "Ibaiak eta errekek antolatzeko lurraldearen arloko plana"-ren arabera, Deba ibaiarekiko lehen 12 metrotan edozein eraikin berri egiteko Ur Agentziaren baimena lortu beharko da.
- 2 IHOBek eginiko "polutzaila izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inventarioa"-ren arabera esparruan kutsatutako lurzorua egon daiteke (186 artikulua).
- 3 Esparruan garatu daitezkeen eraikigarritasunak ez ditu babes publikoko etxebizitzetzi dagokien gutxieneko estandarrek betetzen. Hori horrela, derrigorrezkoa den oreka betetze aldera, helburu horretarako eraikigarritasuna soberan duten esparruen garapenarekin bete beharko da (72 artikulua).
- 4 Esparru honen zuzkidura-bizitokien legezko estandarra (123 m²) Istitzabal esparruan gauzatu beharko da.